

EHUko IKASLE KONTSEILUAK AGERRALDIA EGINGO DU BIHAR EUSKO LEGEBILTZARREAN, EUSKAL UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ERRONKAK AZALTZEKO

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

EHUko Ikasle Kontseiluaren agerraldia Eusko Legebiltzarrean

Eguna: 2025eko urriaren 29a, asteazkena

Agerraldiaren ordua: 13:30

Lekua: Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Batzordea – 1. aretoa, Eusko Legebiltzarra (Vitoria-Gasteiz)

Hedabideei adierazpenak: 12:00 eta agerraldia bukatzean – Eusko

Legebiltzarreko sarrera nagusia

Ordezkaria: Iñigo Ugedo Vicario, EHUko Ikasle Kontseiluko lehendakaria

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak agerraldia egingo du asteazken honetan, urriak 29, Eusko Legebiltzarreko Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Batzordean, ikasleek euskal unibertsitate publikoak dituen erroka nagusien inguruan duten ikuspuntua partekatzeko.

Agerraldia Iñigo Ugedo Vicario Ikasle Kontseiluko presidenteak egingo du, bere lantaldearekin batera, eta honako gai hauek jorratuko ditu, besteak beste: unibertsitatearen finantzaketa — arreta berezia jarriko da azpiegituren egoeran, zerbitzuetan, irakaskuntzaren kalitatean eta matrikulen prezioan —, Unibertsitateen Euskal Legearen erreforma, ikasleen etxebizitza eta ikasleriari eta, oro har, euskal unibertsitate-sistemari zuzenean eragiten dioten beste gai batzuk.

Ikasle Kontseiluak, agerraldi honekin, ikasleek unibertsitate publikoaren etorkizunaren diseinuan eragile nagusi gisa eta bere finantzaketari, irigarritasunari eta kalitateari buruzko eztabaidan ahots aktibo gisa duten papera aldarrikatzen du.

EHUko Ikasle Kontseilua



Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua